



2012KO URRIAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko urriaren hamabian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturako onespenera aurkeztzen da 2012ko irailaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 58 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMAIKA MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (51.730,29,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 1 H.J.A.REN -C.A.F.- 1.1 EGIKARITZE UNITATEAREN HIRIGINTZA JARDUKETA PROGRAMA.-

Alkatetzeta honek, 2012ko maiatzaren 29ko Ebazpen bidez, C.A.F. S.A. enpresak sustatu eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek, Endara Ingenieros Asociados S.L.k eta Mikel Iriondo abokatuak idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ren -C.A.F.- 1.1 Jarduketa Integratuaren Eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa hasierako izaeraz onartzea eta jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zuen.

Aipatu espedientearen jendaurrean erakusgai egon da 20 eguneko denboraldiz, iragarkiak Udaletxeko iragarki oholean eta 2012ko ekainaren 5eko 106 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta onarpena jarduketak eragindako ondasunen eta esku-bideen titularrei jakinaraziz. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Azaldutakoarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, ondorengo akordioak hartzen ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ren -C.A.F.- 1.1 Jarduketa Integratuaren Eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin-betikoz onartzea, C.A.F. S.A. enpresak sustatu eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek, Endara Ingenieros Asociados S.L.k eta Mikel Iriondo abokatuak idatzitakoa.



BIGARRENA.- Behin betiko onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta honekin batera baita edukien laburpena ere. Laburpen honek, gutxienez, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen duen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156 artikuluko 5. apartaduan adierazitakoak jaso beharko ditu.

IV.- 21 H.J.A.REN 21.1 B.U.AREN -KANPANDEGI MEANDROA- URBANIZAZIO PROIEKTUA.-

Alkatetza honek, 2012ko ekainaren 25eko Ebazpen bidez, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21.1 B.U.ko -Kanpandegi Meandro- Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartzea eta jendaurrean erakusgai jartzea ebatzi zuen, Goierri Beheko Industrialdea S.A.k sustatutakoa eta Soroa Arquitectos S.L.P. eta Endara Ingenieros Asociados S.L.k idatzitakoa.

Proiektua jendaurreko erakustaldian egon da hogeit eguneko denboraldian, Udaltzeko iragarki taulan iragarkia ezarriz, eta 2012ko uztailaren 3ko 126 zbk.dun G.A.O.an eta 2012ko ekainaren 29ko Berria eta Gara egunkarietan iragarkiak argitaratuz.

Urbanizazio Proiektua jendaurrean erakusgai egon den 20 eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak eta Ur Agentziak urbanizazio proiektu honen aldeko txostenak egin dituzte.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21.1 B.U.ko -Kanpandegi Meandro- Urbanizazio Proiektua behin-betiko izaeraz onartzea.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lazkaoko Rwanda Taldeari.-

Sanmioletako jaien barruan "Herri afaria"ren antolaketan izandako partehartzearengatik, MILA EURO (1.000 €)ko dirulaguntza ematea.

Kontseiluari.-

Sanmioletako jaien barruan "Euskaraz bizi nahi dut" korrikaldiaren antolaketarengatik, EHUN ETA BERROGEI EURO (140 €)ko dirulaguntza ematea.

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara ikasteko eskoletara joateagatik dirulaguntza eskariak ikusi ondoren eta udalak honetarako jarritako baldintzen arabera Euskara, Hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorera Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batza-



rrak, aho batez, proposamena onartu eta espedientean azaltzen den xehetasunaren arabera 12 laguni guztira HIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (3.298,98 €) ematea erabakitzen du.

VII.- BASHERRI EGUNERAKO DIRULAGUNTZA.-

Ingurumen eta Lehen Sektoreko Batzorde Informatzaileak, "Basherri Eguna"ren antolaketan izandako partehartzearengatik dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartzea eta guztira eta espedientean azaltzen den xehetasunaren arabera, HIRU MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BOST ZENTIMO (3.357,05 €) ematea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

